

## ZOKKETAREN OINARRIAK: “CIRQUE DU SOLEIL” IKUSTEKO 5 SARRERA BIKOITZ

### **LEHENDABIZIKOA.**

Zozketa honetan parte hartzeko, Donostia San Sebastian Turismoaren Instagram sare sozial-eko kontu ofiziala (<https://www.instagram.com/sansebastiantourism/>) eta Cirque du Soleil-en kontua (<https://www.instagram.com/cirquedusoleil.es>) jarraitu behar da. Horrez gain, Donostia Turismoak Instagram-en 2023ko maiatzak 25ean partekatutako “reel”-ean iruzkindu behar da, ikuskizunera norekin joan nahi den esanez.

### **BIGARRENA.**

Zozketa lehendabiziko puntuan aipatutako baldintza guztiak betetzen dituzten parte-hartzaileen artean egingo da. Irabazleak ez badira Donostia Turismoarekin 72 orduan harremanetan jartzen, zozketa berria egingo da.

### **HIRUGARRENA.**

Parte hartzeko epea 2023ko maiatzaren 25etik ekainak 28ko 23:59 bitartekoa izango da. Zozketaren irabazleak ekainaren 30ean argitaratuko dira Donostia Turismoaren web-orrialdean eta Instagram-eko “story”-etan, eta sare sozial bereko mezu pribatu bidez jarriko gara haiekin harremanetan.

### **LAUGARRENA.**

Sariak:

- Guztira, 5 sarrera bikoitz banatuko dira, bi sarrera irabazle bakoitzeko, Cirque du Soleil-en OVO ikuskizuna ikusteko, 2023ko uztailak 19an, 17:30etan Donostia Arena-Illunben.
- Irabazi duten Instagram kontuen atzean dauden pertsonak, nahi duten konpainia hauta dezakete, iruzkinetan parte hartzean esandakoaz gain.
- Sarrera hauek ez dira pertsonal eta besterenezinak, hau da, irabazleak ikuskizunera joan ezinean, beste norbaiti eman dakiokete bere sarrera.
- Halaber, ezinbestekoa izango da, 16 urte baina gazteagoak aita, ama ala legezko tutorearen konpainian joatea. Ikuskizuna ez zaie bi urte baina txikiagoko haurrei gomendatzen.
- Mugikortasun murrizpena duen orok parte har dezake, irisgarritasun neurriak kontuan hartu bai dira.

### **BOSGARRENA.**

Donostia Turismoak berea du partaidetzatik inor salbuesteko eskubidea, baldin eta iritziko balio delako pertsona horrek iruzurrez edo laidoz diharduela beste parte-hartzaileen kontra.

## **SEIGARRENA.**

Donostia Turismoak oinarri hauetan jaso gabeko egoerak ebatzi ahal izango ditu, baita interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak ere.

## **ZAZPIGARRENA.**

Zozketa Donostia Turismoak antolatu du eta bertan ez du parte hartzen eta ez du erantzukizunik INSTAGRAM. INCek.

## **ZORTZIGARRENA.**

Zure datu pertsonalak kudeatzeko erantzukizuna duen enpresa San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, S.A da, Donostian egoitza duelarik eta A-20188884 identifikazio zenbakiarekin. San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, S.A-k zure pribatutasuna eta datu pertsonalen babesari garrantzi handia ematen dio. Hori dela eta, zure informazio pertsonala arreta handiz tratatzen da eta seguru mantenduko da.

Datuak babesteko araudiak diotenaren arabera, zehazki, 2016/679 (EB) Arautegian, 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentu eta Kontseiluko pertsona fisikoen datu pertsonalen babesaren inguruan zehazten denaren arabera, datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio libreaki dagokionez, parte hartzaile bakoitzak Lege Oinarri hauek onartuta, lehiaketa honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak San Sebastian Turismo / Donostia Turismoa, S.Aren fitxategi batean sartzeko baimena ematen du lehiaketan parte hartzea kudeatzeko eta irabazleei jakinarazteko.

Parte-hartzaileek eskubidea dute (i) beraien datu pertsonaletara sartzeko, baita (ii) zehaztasunik gabeko datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, (iii) datuen tratamendua mugatzeko, (iv) datuen tratamendua ezeztatzeko eta (v) haiek mugitzeko.

Parte-hartzaileak, Kontrol Agintaritzaren baten aurrean erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango du, ohiko bizilekua edo ustezko arau-haustea gertatu den lekuan, datu pertsonalen tratamendua egokia izan ez dela pentsatzen bada, baita eskubideak betetzen ez direla uste bada ere.

## **BEDERATZIGARRENA.**

Donostia Turismoak, Instagram-en Pribatutasun Politika arretaz irakurri dezan gomendatzen dio parte-hartzaileari, ondorengo estekan aurki daitekeena:

Instagram: <https://help.instagram.com/155833707900388>

## **HAMARGARRENA.**

Donostia Turismoak oinarri hauek aldatu edo zabaltzeko eskubidea izango du parte-hartzaileen eskubideak kaltetzen ez dituen bitartean.

### **HAMAIKAGARRENA.**

Lege-oinarri hauek Espainiako legediaren arabera arautuko dira. Donostiako Epaitegi eta Auzitegiak izango dute oinarri hauen indarraldiaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sor daitekeen edozein erreklamazio edo gatazka ebazteko eskumena.

### **HAMABIGARREBA.**

Zozketa honetan parte hartzeak oinarriok erabat onartzea esan nahi du.